

SISTEMA INDUSTRIALAK

Robot igokari eramangarria



Robot igokari eramangarria hegazkinetako langaluze desberdinen zulaketarako (A340-500/600 eta A380 Programak). Teknologia honen erabilpenak ondorengoa baimentzen du:

- Produktibitate handipena: inbertsioaren itzultze azkarra
- Instalazioaren layout-a aldatzeko malgutasuna
- Ekoizpen-sistema arin eta Sistema de producción ligero y eko-eraginkorra

Fabrikazio aurreratua

Teknologia multidisziplinari aurreratuen garapena ekoizpen prozesu eta ekipamenduentzat, 2015. urtea helburutzat hartuta. Sinergiak aprobetxatzea du helburutzat, teknologia aurreratuen garapenerako. Hauek, ekipamendu eta ekoizpen prozesuetan

sar daitezke. Garatutako proiektuetako bat makina-herraminta optimizatuaren diseinuan oinarrituta dago, zehazki marruskadura soldaduran .



Eraikuntzaren industrializazioa

Eraikuntza modularren industrializazioa eta fabrikazio prozesuen automatizazioa, muntaia eta desmuntaia obretan ondorengoa lortzeko:

- Kostuen murrizketa
- Produktibitatearen handipena
- Kalitatearen maila haundiagoa
- Lan ezbehar-kopuruaren murrizketa obretan

Xafla konformatu inkrementala



Matrize gabeko xafla konformatu inkrementalaren prozesuaren aplikazio multisektoriala: :

- Metalezko xaflen piezen ekoizpen azkarra, punzoi baten konformatu inkrementalaren bitartez . Punzoiak ibilbidearen kontrolatzen du

zenbaki-gisa.

- Egur edo erretxinez egindako matrize soilen bitartez edo matrizerik gabekoak.
- Prozesu oso malguak serie oso motzetan, pieza bakarrak eta prototipoak.

Makina konplexuen autodiagnostikoa sistema adimentsu baten bitartez

- Sistema adimentsu honek ekipamenduen mantenu prediktiboari laguntzen dio gerta daitezken akatsak eta anomaliak aurre ikusi ditzakelako.

- Sistema autonomoa da, bere kabuz ikasi dezake eta honela, makinaren ezagutza hobetu dezake

etengabeki, kostuak aurreztuz eta kalitate haundiko zerbitzua eskainiz.



Marruskadura soldadura



Marruskadura linealaren soldadura teknologiaren erabilpena (FSW) aleazio berriak eta geometria berriak barne dituen aplikazioentzat. Alor honetan

tresneria berezia garatzen du "T" itxurako batasunak lortuz, prozesua barnekaldeko angelutik erasotuz. Horretarako onuragarria da teknologia honen erabilpena.